

7. OINARRIZKO EKINTZA

1. Gure zerbitzua erabiltzeko, erreserba egiteko aukera eskaintzen dugu, erreserba egitea 2€-ko prezioa dauka eta lokalera iristean 2 euro horiek bezeroei itzuliko zaizkie. Horrela prezio oso baxu batekin, bezeroek, ez dute lekurik gabe gelditzeko beldurrik izango. Erreserba egin ondoren etortzen ez bazara, erreserba egiteko jarri duzun dirua galduko zenuke. Erreserba egiteko, eguna eta ordua jartzea beharrezkoa da. Gure lokalera modu desberdinetan iritsi daitezke bezeroak; trenez, busez edo oinez. Gure helbidera Donosti... iritsi ondoren, gure lokala ikusiko duzu, lokalera sartzean; mugikorrak soinu gabe jartzea eta baxu hitzegitea eskatzen zaizue, beste bezeroei ez molestatzeko. Sarreran, harrera-lekua aurkituko duzue eta han bertan, gure langile bat egongo da. Langile horrek aukera ezberdinak emango dizkizu, (gure karteletan ikusi ditzazkezu aukerak) eta zure interesei gehien hurbiltzen dena aurkitzeko laguntzeko prest egongo da. Aukeratu ondoren, sartze data apuntatuko dugu, baita ordua ere. Horrela gero ateratzean egon zaren denbora errazago jakingo dugu eta horren arabera ordainduko dizugu. Bestalde gure bezeroen kontaktetan eta gure enpresaren arrakasta neurtzen lagunduko digu. Datuak hartu ondoren (izena eta abizena), berria bazara gure lokalean seinale ezberdinak edukiko ditugu; literak, lan tokia, taberna... errazago aurkitzeko edo guri galdetzeko aukera izango duzue.
2. Gure zerbitzuak; literak, lana egiteko tokia, taberna... Erabili ostean; gure harrerara joan behar zara, ordainketa egiteko. Harrerara iristean, gure langileak bezeroei ea ondo, lasai... egon den galdetuko diogu, ezbeharren bat gertatzen baldinbada, hura jakiteko eta lehen bailen konpontzeko. Dena ondo joan bada, ordainketa egiteko zure izena esan beharko zenuke eta horren bidez, zer ordutan sartu zaren jakingo dugu.